

Hainbat egun zaurituta zeramatzan Kolonbiako talde bateko burua salbatu dute Lazkano, Tamayo eta Iñurrategitarrek

Erreskatea Nanga Parbaten

Himalayako menditzarretan berriro ere auzitan jarri da mendizaleen jokabidea

Ramon Olasagasti / Donostia

ORAINDIK ORAIN Edurne Pasaban mendizale tolosarrak, Everesteko ipar hormatik bueltan, espedizio eta mendizale zenbaiten gizatasun eta elkartasun falta salatu zuen, han, zortzimila metrotik gora ikusitakoa sinistu nahi ezik. Orduko hartan belgikar bat amildu egin zen 8.500 metro inguruan, haren ondotik beste mendizale bat igaro eta berehala. Bidetik desbideratuta eta komerietan izan arren, belgikarrak ez zuen laguntzarik jaso.

Mendizaleari betidanik aitortu izan zaizkion balioen gainbehera ezin da inolaz orokortu, azken batean pertsona kontua baita dena. Kike de Pablok gordin dioen bezala «izan zaitezke mendizalea eta putaseme galanta». Ordea, Himalayako gailur handietako beheko kanpamentuak jendez betetzeak izan bide du eraginik bilakaera horretan.

Aurreko astean, Nanga Parbat zortzimilakoan elkartasun falta horren beste adibide baten lekuko izan ziren Jon Lazkano, Jose Carlos Tamayo, Felix eta Alberto Iñurrategi euskal mendizaleak eta, oro har, *Al filo de lo imposible* telebista saioko talde osoa. Taldekideak hilaren 15ean, aurreko ostegunean, iritsi ziren kanpamentu nagusira, Izenik Gabeko Dorrea eskalatu ondoren.

Artean kanpamentu nagusira inguruatzen ari zirela




MIKEL RUIZ DE APODACA

Nanga Parbateko Diamir aurpegia.

jakin zuten aurrenekoz albiste. «Bidean kolonbiar batekin egin genuen topo, eta istripu bat izan zela eta helikoptero baten bila zihoala esan zigun», jakinarazi du Sebastian Alvaro *Al filo...* programako zuzendariak Nanga Parbateko kanpamentu nagusitik bertatik.

Beheko kanpamentura iristean harri eta zur geratu ziren *Al filo...* saioko kideak: «Japoniako espedizio bateko mendizaleak beraien goiko kanpamentuetatik bigarrenera jaitsi ziren zuzenean, kolonbiarren aldamenetik igaro eta, mendizale bat hilzorian izan arren, kasu zipitzik egin gabe», jakinarazi du Alvarok.

Hori ikusirik, lau mendizale euskaldunak, denborarik galdu gabe, gorantz abaitu ziren ostiralean bertan, kanpamentu nagusiko dendak antolatzeke betarik izan



SEBASTIAN ALVARO

■■■ *«Japoniako espedizioa kideek kolonbiarren ondotik igaro eta, mendizale bat hilzorian izan arren, behera egin zuten, lagundu gabe»*

gabe. Zuzenean bigarren kanpamenturaino igo ziren, eta kolonbiarrak konbentzitu zituzten hirugarrenetik nola edo hala jaisteko bigarren kanpamenturaino, eurak zeuden lekuraino alegia, haien bila ez zela eta helikopteroz igoko. «Helikoptero bidezko erreskate ezinezkoekin ahazteko esan genien. Kasurik onenean beheko kanpamentura etorriko zen helikopteroa, baina zaila hori ere, Pakistan eta Indiako mugalde honetan gerran baitaude», azaldu du *Al filo...*-ko zuzendariak.

Hirugarrenetik bigarrenera nola edo hala jaitsi zuten kolonbiarrek beraien espedioburu alemaniarra. Tarte horretan Kinshoffer horma gairatzen euskaldunen laguntza izan zuten. Plastikozko bidoi handi bat erdibitu eta han barruan sartuta zintzilatu zuten mendizale

zauritua. Eta handik, beheko kanpamenturaino. Egun, Gilgit-eko ospitalean dago mendizale alemaniarra.

Japoniako espedizioak bezala, Koreako beste talde batek ere hutsaren hurrengo laguntza eskaini zien kolonbiarrei. Hori dela eta, Alvarok gogor salatu du gailurra mendizale baten bizitzaren gainetik jartzea. «Azkenean ondo atera da dena, eta ahalgina merezi izan du», esan digu Alvarok.

Lazkanok, Tamayok eta Iñurrategi anaien esfortzu dezentea egin dute, eguraldi oneko egun zoragarri batzuk joan zaizkie ahailekin horretan, baina egindakoak seguru gailurrak hainbat gogobete dituela. Gainera, astebururako eguraldi ona iragarri omen dute Nanga Parbaten eta oso litekeena da gailurrea iristeko saioaren bat egitea. Sari polita litzateke.